

Bidasoa-Lapurdi eskualdea ekonomia-, gizarte- eta ingurumen-erantzukizuneko mugaz haraindiko espazio bihurtzeko proiektuko buru da MIK.

2012/07/16

Bidasoa-Lapurdi mugaz haraindiko eskualdea ekonomia-, gizarte eta ingurumen-erantzukizuneko espazio bihurtzeko helburua duen proiektuko buru da MIK ikerketa-zentroa. Proiektuak hainbat bazkide ditu eta bere jomuga 2020 Europa Estrategia da, hau da, Europan hazkunde adimentsua, iraunkorra eta integratzailea lortu nahi duen estrategia.

Lurraldeko Gizarte Erantzukizuneko (RESOT) proiektua da eta gizarte-erantzukizuneko lurraldea garatzea du xede; horretarako, hainbat eragilek ekintza praktikoak diseinatuz eta gauzatuz parte hartzea aurreikusten du. Hala, proiektuak –hiru fase ditu– Behe Bidasoa eta Lapurdi mugaz haraindiko eskualdea zenbait eremuren ikuspegitik erantzukizuneko espazio bihurtu nahi du.

Urratsez urrats

Iraunkortasunaren inguruko kultura bat sortzeko, inguruko eragileen parte-hartzea eta erantzukidetasuna sustatu behar dira. Horregatik, proiektuak zenbait eremutako bazkideak hartzen ditu barne: herri-administrazioak, enpresak eta unibertsitatea. Zehazki, MIK buru den proiektuak ikerkuntzako eta hezkuntza-eremuko bazkideak ditu –ESTIA, Mondragon Unibertsitatea-Enpresagintza–, herri-administrazioetakoak –Irungo eta Hondarribiko Udalak– eta mugaz haraindiko enpresak lotzen dituzten erakunde publikoetakoak –Communauté de Communes Sud Pays Basque eta Bidasoa Activa–. Horixe da, hain zuzen, proiektuaren lehen fasea: Eraldaketa Sarea osatzea, proiektuaren muina izango diren funtsezko egile eta eragileak zehaztuz.

Gizarte-erantzukizunak onarpen zabaleko balioak ditu, hala nola iraunkortasuna, lehiakortasuna, dibertsitatea eta sinergiak eta ukiezinen garrantzia. Halaber, balio instrumentalak ditu, esaterako ezagutza eta ikasteko irekitasuna, aldaketa eta proaktibitatea, arazoak konpontzeko lankidetzeta eta globalizazioa. Hala, proiektuaren bigarren fasean Bidasoa-Lapurdi eskualderako gizarte-erantzukizuneko balioak zehaztuko dira eta horien inguruko sentsibilizazioa egingo da. Ildo horretatik, eskualdeak berak aukeratuko ditu bere errealitate sozialerako eta ekonomikorako egokitutako balioak eta horiek etorkizuneko garapenean izango duten garrantzia.

Bidasoa-Lapurdi Gizarte Erantzukizuneko Lurraldeko Eraldaketa Sareko parte-hartzaileek aho batez aukeratuko dituzte ekin beharreko ekintza guztien zeharkako balioak.

Hirugarren faseak mugaz haraindiko eragile-sareak diseinatu eta gauzatu beharreko proiektu zehatzak izango ditu xede. Horretan, mugaz haraindiko proiektuak burutuko dira, eskualdea osatzen duten lurralde bakoitzaren –Behe Bidasoaren eta Lapurdiren– bereizgarriak aintzat hartuta. Hiru fase horiek beste eskualde batzuetara ere eraman daitezke, horietan antzeko eginkizunak bete ditzaketen eragileak izanez gero. Abiapuntuak berdina izan behar du kasu guztietan, ordea: eskualdeak berak –sarean ordezkatzan dituen eragileen bidez– erabaki behar ditu azken fasearen nondik norakoak.

